

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# Geografia

# USE 2020

[www.ehu.es](http://www.ehu.es)



***Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.***

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:

**A multzoa (4 puntu): A1 eta A2 aukeren artean, aukeratu bat.** Mapak, grafikoak edo irudiak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

**B multzoa (4 puntu): B1 eta B2 aukeren artean, aukeratu bat.** Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

**C multzoa (2 puntu): Proposatutako 8 kontzeptuetatik 4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du). Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

- En esta prueba escrita **realizarás 3 ejercicios.**
- Los ejercicios están distribuidos en tres bloques:

**Bloque A (4 puntos): Elige una opción entre A1 y A2.** Se valorará la correcta elaboración de los mapas, gráficos o imágenes, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

**Bloque B (4 puntos): Elige una opción entre B1 y B2.** Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

**Bloque C (2 puntos): Define 4 de los 8 conceptos propuestos** (valorado hasta 0,5 puntos cada uno de ellos). Cada concepto geográfico debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas.

**En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.**



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA

2020ko OHIKOA

GEOGRAFIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A LA UNIVERSIDAD


ORDINARIA 2020

GEOGRAFÍA

### A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)


A1 eta A2 aukeren artean, **aukeratu bat**

**A1.-** Espainiako trenbide-sarearen maparen iruzkina. (4 puntu)



Iturria: Geografiako Institutu Nazionala. 2016.

**A2.-** Euskal Autonomia Erkidegoko adin-piramideari buruzko iruzkina. (4 puntu).



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala



**B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)**

B1 eta B2 aukeren artean, **aukeratu bat**

**B1.-** Euskal Autonomia erkidegoko klima mota nagusien eta eremu klimatiko bakoitzari dagokion landaretza motaren sintesia. (4 puntu)

**B2.-** Hiri-egitura: alde zaharra, zabalgunea eta periferia. (4 puntu)

**C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)**

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du).

Definizioa (5 lerro, gehienez):

- Migrazio-saldoa (0,5 puntu)
- Konurbazioa (0,5 puntu)
- Abeltzaintza intentsiboa (0,5 puntu)
- Goi-teknologiako industria (0,5 puntu)
- Aire-masa (0,5 puntu)
- Hiri-antolamenduko Plan Orokorra (0,5 puntu)
- Garapen jasangarria (0,5 puntu)
- Landaredi potentziala (0,5 puntu)



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

#### Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

### A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

#### A1.- Espainiako trenbide-sare maparen iruzkina. (Praktikoa): puntuazioa 0/4.

-Describe cómo se articulan los medios de comunicación más importantes de España (ferrocarriles, carreteras, puertos y aeropuertos).

*Estándares de aprendizaje evaluable, Orden PCI/12/2019*

4.- Ea jarduera ekonomikoak eta haien eragiten dituzten eraldaketak aztertzen dituen, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzen dituen, egungo joerak azaltzen dituen eta joera horiek beren Europako testuinguruan balioesten dituen.

*Ebaluazio irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da trenbide garraioaren ezaugarrietan:

- ✓ Sarearen gaineko eskumenak Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko banaketa: estatuko sarea gehiengo da, eta autonomia-erkidegoak nazioarteko sarearekin lotzen dituzten lineak biltzen ditu. ADIF enpresak sarea administratzen du, eta sarea ustiatzeaz eta mantentzeaz arduratzen da eta linea berriak eraikitzen ditu eta RENFEk bidaztien eta salgaien zerbitzuak ematen ditu.
- ✓ Trenbide-sarea:



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Sare konbentzionala: 200 km/h-ko abiaduran baino txikiagoan zirkulatzeko ekipatuta dago. Egitura erradiala du. Hiriburutik periferiara luzatzen da oinarrizko saretik bigarren eta oinarrizko sareetara adartuz Horietako linea batzuk defizitarioak dira, oso gutxi erabiltzen direnez, ustiatze-kostu handiak ezin direlako konpentsatu. Itxi egiten dira edo estatuko diru-laguntzak jasotzen dituzte.
- Abiadura handiko sarea: 200 km/h-ko abiaduran baino handiagoan ibiltzeko ekipatuta dago. Lehen linea Madrid-Sevilla 1992-an ireki zen eta ordutik zabaltzen joan da.
- Bide estuko sarea: Batez ere Kantauri isurialdean dago. Arazo nagusia gutxi erabiltzen dea da, eta hori hobetzeko azpiegiturak hobetzen dira eta aldiriko trenen eginkizuna hartzen dute.

### A2.- Euskal Autonomia Erkidegoko adin piramidearen iruzkina. (Praktikoa): puntuazioa 0/4.

-Comenta la pirámide actual de la población española y la compara con alguna de un periodo anterior o de previsiones futuras.  
-Analiza un gráfico de la estructura de la población española.

*Estándares de aprendizaje evaluable, Orden PCI/12/2019*

6.- Ea biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzen duen (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamikak eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, ea desberdintasun ekonomikoen, biztanleriaren banaketa desberdinaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearren arazoak eta ondorioak azaltzen dituen.

*Ebaluazio irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da:

- Piramideak aurkezten duen itxura
- Populazio zaharraren artean: bere bizi-itxaropen handienari dagokionez populazio femeninoaren pisu haundiagoa. 75-79 urtetako barran gerra-aldiaren azpi-jaiotza-tasa.
- Helduen artean: *baby boom* (1958-1977) belaunaldiaren eta hurrengo urteen zabaltasuna
- Belaunaldien murriztapena urte horietatik aurrera emankortasun eta jaiotza-tasaren jaitzieragatik
- Zabaltze txikian nabarmentzen den orain dela gutxiko jaiotzaren berreskuratzea, oso xumea, 5-14 urte tartean.
- Azken beherakada, krisia eta adin emankorreko belaunaldien kopuru txikiagoa.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)

**B1.-** Euskal Autonomia erkidegoko klima mota nagusien eta eremu klimatiko bakoitzari dagozkion landaretza mota desberdinen sintesi **(Teoria): puntuazioa 0/4.**

-Describe los climas de España enumerando los factores y elementos característicos.  
-Enumera los rasgos de los tipos de tiempo atmosférico establecidos por las estaciones climatológicas.

*Estándares de aprendizaje evaluable, Orden PCI/12/2019*

3.- *Ea ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak zein diren ba ote dakien, Espainian eta Euskadin dauden multzo naturalak ezagutzen dituen, multzo horiek mapan aurkitzen dituen, bertako elementuak eta dinamika identifikatzen dituen, haien interakzioak azaltzen dituen eta gizakiaren ekintzak betetzen duen zeregina balioesten duen.*

*Ebaluazio irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Dauden mota guztiak desberdindu eta kokatu behar dira. Haietako bakoitzeko elementuak eta erregimenak eta bere faktoreak adierazi behar izango dira, bere lokalizazioaz eta bere izendapen zuzenez gain:

- ✓ Klima ozeanikoa: EAEko atlantiar isurialdean. Urteko 800mm baino gehiagoko prezipitazioak, erregularrak. Temperatura leunak, oszilazio termiko baxua. Baso hostogalkorra, neurri batean birpopulaketengatik ordezkaturata
- ✓ Trantsiziozko klima ozeanikoa: Arabako erdiko eskualdeak. Prezipitazioak urtean 600-900mm bitartekoak. Urteko batez besteko tenperaturak baxuagoa, neguak hotzagoak. Urteko oszilazio termikoa handiagoa. Pago-basoa, haritz-mota desberdinak eta pinu naturalak
- ✓ Barneko klima mediterranea: Arabako Errioxan. Urteko prezipitazioak 600mmtakoak baino gutxiagokoak; udan lehor-aldia. Urteko oszilazio termikoa handiagoa. Baso hostoiraunkorra.

**B2.-** Hiri-egitura: alde-zaharra, zabalgunea eta periferia. (4 puntu) **(Teoria): puntuazioa 0/4.**

-Identifica las características del proceso de urbanización.  
-Explica la morfología urbana y señala las partes de la ciudad sobre un plano de la misma.

*Estándares de aprendizaje evaluable, Orden PCI/12/2019*



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

7.- *Ea populatze motak bereizten dituen. Espainiako urbanizazio-prozesua lurraldea hiri-sistemaren konfigurazioaren bitartez antolatzeke modu gisa interpretatzen duen. Eta, era berean, hirien morfologiaren eta funtzioen oinarizko alderdiak eta hiri-espazioan duten banaketa ezagutzen eta identifikatzen dituen.*

*Ebaluazio irizpideak. 127/2016 Dekretua*

Hiri-eremu desberdinen morfologia eta funtzioak bereiztea baloratuko da, beren ezaugarri, bilakaera eta problematikarekin:

- ✓ **Alde zaharra**
  - herentzia historikoa
  - planoen aniztasuna
  - Errenazimendu, Barroko, Ilustrazio eta industria-garaiko aldaketak.
  - saturazio, narriadura, segregazio eta gizarte arazoak etab.
  - birgaitze politikak.
- ✓ **Zabalgunea**
  - zabalgune burgesa: lauki-formako planoak, eraikuntza-morfologia, bizitegi-funtzio burgesa.
  - hiriko funtzio nagusien egoitza (CBD)
  - bizitegi-funtzioaren beherakada
- ✓ **Periferia**
  - bizitegi-auzoak: tipologiak eta gizarte-segregazioa
  - dentsitate txikiko bizitegi-eremuak (familia bakarrekoak, atxikiak)
  - periferiako industria-guneak: industrialdeak; industria-gune berriak
  - merkataritza-, ekipamendu- eta azpiegitura-eremuak

### C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)

#### 4 Kontzeptu aukeratu behar dira: puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Migrazio-saldoa:** leku jakin bateko immigrazio eta emigrazioaren arteko balantzea.

**Konurbazioa:** hiri aglomerazio batean batu arteko bi hiri edo gehiagoren hazkunde paraleloa. Hainbat zentro independente dituen continuum urbanizatu bat izateagatik bereizten da.

**Abeltzaintza intentsiboa:** ahalik eta denbora gutxienean abelburu gehien ekoiztea ziurtatzen duen sistema; inbertsioak eskatzen ditu abeltegietan,





## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

teknologian, eskulanean eta elikaduran. Abeltzaintza ukuluetan eta pentsuz elikatua.

**Goi-teknologiako industria:** etengabeko ezagupen berriztapenak eta oinarri teknologiko sendoak definitzen du eta benetako ahalegina eskatzen du I+G (I+D) arloetan. Beste teknologia motak baino maila aurreratuago du.

**Aire masa:** hedadura handiko aire-bolumena edo -zattia; haren propietate fisikoak, batez ere tenperatura, hezetasuna eta presioa, uniformeak dira edo oso poliki aldatzen dira plano horizontalean. Ezaugarri horiek jatorrizko eskualdeetan eskuratzen dituzte..

**Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra:** udalerrriaren hirigintza -antolamendu integralerako oinarritzko tresna da. Hiri-garapena zenbait urtetarako proiektatzen du: inguru bakoitzeko lurzoruaren erabilerak, lurzoruaren sailkapena (hirikoa, urbanizagarria eta urbanizaezina), eraikuntza-dentsitatea, bide-sarea, ekipamendua eta ingurumen-babeserako neurriak.

**Garapen iraunkorra:** etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak ase ahal izatea arriskuan jarri gabe egungoko beharrak asetzen dituen garapena.

**Landaredi potentziala:** era naturalean, giza esku-hartzerik gabe, tokiaren inguru-baldintzen arabera hazi beharko luken landaredia.